

174/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko justizia administrazioko hizkuntza- normalkuntzari buruzkoa

(Decree 174/2010 of 29th June on Linguistic Normalisation of the
Judiciary of the Autonomous Community of the Basque Country)

ETXEBERRIA GURIDI, Jose Francisco

Euskal Herriko Unibertsitatea
Zuzenbide Fakultatea
Zuzenbide Publikoa Saila
Lardizabal Pasealekua, 2
20018 Donostia
patxi.etxeberrria@ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2010), 20; 113-116]

Sarrera eguna: 2010.11.02
Onarpen eguna: 2010.12.15

E

uskararen erabilera Justizia Administrazioan ez da, tamalez, gai paketsua. 174/2010 Dekretuak Justizia Administrazioko hizkuntza "normalkuntza" badu ere helburu gisa, nabarmen ageri da "normalizazio" politikak porrot egin duela eta gora-behera politikoaren menpe dagoela. Hiru dira gai berdinari buruz hamar urtetan eman diren Dekretuak. Tartean Auzitegi Konstituzionala eta beste Auzitegien ebazpenak eman dira gai korapilatsu baten inguruan: zein lanpostutan eta zein baldintzetan zilegia den hizkuntza-eskakizuna. Zoritxarrez, eta hainbat pelikulatan esan ohi den bezala, "honek jarraipena izango du".

Giltza-Hitzak: Euskara. Justizia Administrazioa. Hizkuntza-normalkuntza. Hizkuntza-eskakizuna. Derrigortasun-data.

E

l uso del euskera en la Administración de Justicia no es, por desgracia, un asunto pacífico. Si bien el Decreto 174/2010 tiene por objeto la "normalización" lingüística de la Administración de Justicia, es evidente que la política de "normalización" ha fracasado y que está supeditada a los cambios políticos. En diez años han sido tres los Decretos aprobados sobre el mismo tema. El Tribunal Constitucional y otros Tribunales también han emitido sus resoluciones en torno a un tema espinoso: en qué puestos de trabajo y en qué circunstancias es lícita la exigencia del perfil lingüístico. Desafortunadamente, como se suele decir en las películas, "continuará".

Palabras Clave: Euskara. Administración de Justicia. Normalización lingüística. Perfil lingüístico. Fecha de preceptividad.

Z

usage du basque dans l'Administration de Justice est malheureusement un sujet loin d'être apaisé. Même si le Décret 174/2010 a pour objet la « normalisation » linguistique de l'Administration de Justice, il est évident que la politique de « normalisation » a échoué et qu'elle dépend des changements politiques. En dix ans, trois Décrets ont été approuvés sur le sujet. Le Tribunal constitutionnel et d'autres Tribunaux ont également émis leurs résolutions quant à un sujet épineux : à quels postes de travail et dans quelles circonstances l'exigence du profil linguistique est-elle légale ? Malheureusement, comme on le dit souvent dans les films, « suite au prochain épisode ».

Mots-Clés : Basque. Administration de Justice. Normalisation linguistique. Profil linguistique. Date d'application.

1. Dekretu berriaren arrazoiak. 2. Esparru arautzailea. 3. Dekretuaren aplikazioaren eremu subjektiboa. 4. Zein lanpostutan eska daiteke hizkuntzaren (euskararen) ezagutza eta zein lanpostutan baloratu daiteke meritu gisa?

1. Dekretu berriaren arrazoiak

Epe labur batean, hamar urtetan, hiru Dekretu desberdin onartu dira gai berdina arautzeko asmoz, hau da, euskararen erabilera Justizia Administrazioan. Edo Dekretuek dioten bezala, "hizkuntza-normalkuntzari buruzkoa". Hala nola, 117/2001 Dekretua, ekainaren 26koa, 152/2008 Dekretua, uztailaren 29koa, eta azkenik 174/2010 Dekretua, ekainaren 26koa. Zeintzuk dira arau-inflazio honen arrazoiak? Horrenbeste aldatu al da arautu beharreko gaia hain epe laburrean hiritan Dekretu berriak emateko?

Azken Dekretuaren Hitzaurrea irakurriz gero, igar dezakegu zein izan daitekeen aldaketa hauen guztien gakoak. Alde batetik, 174/2010 Dekretuaren Hitzaurrean azpimarratzen da batez ere jardun judizialetan eta izapide prozesuetan hizkuntza propioa erabiltzearen garrantzia. Horren adierazgarri, Dekretuaren Hitzaurrean esaten da hizkuntza propioaren erabiltzea "aizipetu beharreko pertsonari dagokion defentsa- eskubideari nahitaz lotuta dagoen tresna dela". Baina jasotakoak ez du, besterik gabe, aldaketaren arrazoia argitzen.

Hitzaurreak berak, baina lerro batzuk aurrerago, Dekretu berriaren onartzea Bulego Judizial berriaren antolakuntzarekin lotzen du, hau da, "Justizia Administrazioa goitik behera berrantolatzeke abian den prozesu garrantzitsuen baitan kokatu behar" dela dio. Berrantolaketa hori gorpuzten hasi da berriki onartutako azaroaren 3ko 1/2009 Lege Organikoari esker. Lege horrek Botere Judizialaren Lege Organikoa (BJLO) aldatu du, eta Bulego Judizial berria ezartzeko legeria prozesala eraldatzen duen 13/2009 Legearen osagarri da. Testu arautzaile horiek, 19/2003 Lege Organikoak xedatutako erreformaren bidez, Justizia Administrazioaren zerbitzuaren prestazioan egindako plangintza burutu dute. Beraz, eta Hitzaurrearekin jarraituz,

(...) berriki egin diren lege-aldaketak eta bulego judizialaren antolakuntza eta funtzionamendu-egitura berriak abiarazteko beharra direla medio, une honetan ezinbestekoa da aurreko Dekretua -2008ko uztailaren 29koa, alegia- berriro formulatzea.

Bulego Judizial berriaren antolakuntzak eta aipaturiko lege-aldaketek izango dute, noski, eragina eta ez nolana hikoak, gainera.

Deigarria da, halere, aurreko Dekretuek izan dituzten gora-beheren aipamenik ez egitea, batez ere Auzitegi desberdinen eskutik pasatu baitira beren egokitasuna zalantzan jarri ondoren. Esate baterako, 117/2001 Dekretuaren aurka Estatuko Administrazioak, Estatuko Abokatuaren bitartez, errekurtsio kontentzioso-administratiboa tarteratzen du, argudiatuz Justizia Administrazioako lanpostu batzuk betetzeko euskararen ezagutza obligazioa dela, eta horrek hainbat Erregelamendu urratzen dituela (RD 249/1996 eta RD 296/1996). Errekurtsio hau bertan behera geratzen da bere objektua galtzeagatik, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Kontentzioso-Administratiboko Aretoak bere gain duenean Dekretu hura, 152/2008 Dekretu berriak ordezkatzan duelako (827/2009 sententzia, 2009ko abenduaren 18koa).

Aipatutako errekurtsioaz gain, Estatuko Gobernuak, baita ere Estatuko Abokatuaren bitartez, 117/2001 Dekretuaren aurka eskumen gatazka positiboa tarteratzen du Auzitegi Konstituzionalaren aurrean. Kasu honetan argudiatzen da Dekretuak Justizia Administrazioaren inguruan Estatuak duen eskumen eksklusiboa urratzen zuela (KE 149.1.4). Kasu honetan, Auzitegi Konstituzionalak erabakia hartzeko beta izan zuen (270/2006 sententzia, irailaren 13koa) eta eskumen gatazka zati batean onartu zuen.

Ez zen baketsuagoa izan 152/2008 Dekretuaren indarrean egotea. Kasu honetan ere, Estatuko Administrazioak errekurtsio kontentzioso-administratiboa tarteratu baitzuen Euskadiko Justizia Auzitegia Nagusiko Kontentzioso-Administratibo Aretoaren aurrean. Auzitegi honek sententzia ematen du 2009ko urriaren 1ean, eta Dekretuko hainbat artikulua baliogabe deklaratzan ditu.

Aurrekari hauek guztiak aipatu eta gero, bi ondorio azpimarra ditzakegu: bata, 174/2010 Dekretua onartzearen arrazoiaren artean beste bi Dekretuek jasan duten ibilbideak zerikusi handia izan duela, filosofia desberdinen aurrean baikaude; bestea, tamalez bide luzea egin behar dugula oraindik Justizia Administrazioan eta Administrazioaren beste hainbat eremutan hizkuntza-normalkuntzara iristeko.

2. Esparru arautzailea

174/2010 Dekretu berriaren Hitzaurrea erabat utzi gabe, bertan aurki dezakegu zein den bere esparru arautzailea. Alde batetik Konstituzioa eta Gernikako Estatutua aipatzen dira hizkuntza-ofizialtasunari buruzko lehen urratsak zehaztearren (3. y 6. artikulua). Nola ez, Euskararen Erabilera

normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legea eta, batez ere, bere 9.1. artikulua, bertan jasotzen baita Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiak beren aukerako hizkuntza ofizialak baliatzeko eskubidea. Baita ere Lege bereko 14. artikuluan xedatutakoa, hau da, botere publikoek neurriak hartu beharko dituztela Administrazioan lanean ari direnak euskalduntzeko eta finkatu beharko dituztela Administrazioaren plantilletako zein lanpostutan den nahitaezkoa hizkuntza ofizialak jakitea.

Esparru arautzailea zehazterakoan, ezin alde batera utzi BJLO eta garrantzitsuak diren Lege horren 231. artikulua eta, batez ere, V. eta VI. Liburueta egiten diren igorpenak. Ez badira ere bereziki aipatzen, eragin handiko artikulua izan dira lehen zitaturako sententzietan bai 521. artikulua, bai 530a ere. Lehendabizikoan, lanpostuen sailkapen garrantzitsu bat egiten da: orokor edo generikoak, batetik; eta bereziak edo singularizatuak, bestetik. Bigarrenko artikulua arabera, hizkuntza ofiziala duten Autonomi Erkidegotan, beti ere horretarako eskumendunak badira, hizkuntza horien ezagutza meritu gisa baloratu daiteke, eta lanpostu batzuetarako hizkuntza horien ezagutza eskatu ahal izango da, baldin eta “bete behar diren funtzioetatik ondorioztatzen bada eskakizun hori eta lanpostu-zerredetan hala ezarrita badago”.

Ez zaio, ezta ere, aipamen berezirik egiten KEko 149. artikuluari. Baina dudarik gabe Estatu eta Autonomi Erkidegoen arteko eskumen banaketarako kantoi-harritzat hartu beharrekoa da.

3. Dekretuaren aplikazioaren eremu subjektiboa

Nortzuk dira Dekretuaren hartzaileak? Bere 2. artikulua arabera, Dekretuaren aplikazio eremua Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuko kidego honako langileetara mugatuko da: Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko kidegoa, Izapidetze Prozesal eta Administratiboko kidegoa, Laguntza Judizialeko kidegoa, Auzitegiko Medikuen kidegoa eta Laborategiko Laguntzaileen kidegoa.

Esan beharrik ez dago Dekretua ez dela aplikagarria Epaille, Magistratu, Idazkari Judizial eta Fiskalen kasuan. 117/2001 Dekretuak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarrian zioen Euskadiko Autonomi Erkidegoko Administrazioak Epaille, Magistratu, Idazkari Judizial eta Fiskalekiko sustatu zitzakeen jarduerak, bai Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin, bai Justizia Ministerioarekin egindako hizkuntza-normalkuntza edo formazio

hitzarmenen esparruan, kontutan hartuko liratekeela 2, 3 eta 4 hizkuntza-eskakizunak. Xedapen Gehigarri honek, besteak beste, Auzitegi Konstituzionalaren aurrean tarteratutako eskumen gatazka positiboa oinarritu zuen. Auzitegi Konstituzionalak arrazoiak ematen dio Estatu Gubernuari, Xedapen Gehigarria konstituzio-kontrakoa aitortuz. Bere ustetan, etorkizunean egin daitezkeen hitzarmenetara baldintzatuta badago ere bere aplikazioa, Epaille, Magistratu, Idazkari Judizial eta Fiskalak hizkuntza-normalkuntzarako neurripean jartzeak Konstituzioan egiten den eskumen banaketa urratzen du.

4. Zein lanpostutan eska daiteke hizkuntzaren (euskararen) ezagutza eta zein lanpostutan baloratu daiteke meritu gisa?

Esan daiteke puntu honetan eman direla Dekretu berriaren eta 2008koaren arteko alde nabarmenenak. 152/2008 Dekretuak artikulua bat baino gehiagotan jasotzen zuen, hizkuntza-normalkuntzarako bidean, lehen aipaturiko Justizia Administrazioaren zerbitzuko pertsonalekiko, “langileen lanpostu-zerrendako lanpostu *guztiei* hizkuntza-eskakizunak” izendatu behar zaizkiela. Horrekin batera, “derrigortasun-data” ere (3.a. artikulua, edota 4.1). 152/2008 Dekretuaren izpiritua, beraz, lanpostu guztiek hizkuntza-eskakizuna izatea zen.

Halere, asmo hori leuntzeko hainbat irizpide ere jasotzen ziren. Esate baterako, unitateak eta azpiunitateak katalogatzeko garaian, hizkuntza-eskarietarako, “herritarrengandik duen hurbiltasuna” kontuan hartu beharko zela (hizkuntza-eskakizunak 86/1997 Dekretuan jasotzen diren 2 eta 3 izan behar zuten). Bestalde, hizkuntza-eskakizunak ez ziren berehala bete beharrekoak. Lanpostu bakoitzaren hizkuntza-eskakizuna betetzeko, “derrigortasun-data” zehaztu behar zen lanpostu-zerrenda osatzerakoan (3.a. artikulua). Derrigortasun-datatik aurrera, hizkuntza-eskakizuna izatea nahitaezkoa izango zen lanpostu bat eskuratu eta horretan jardun ahal izateko (4.1. artikulua). Halere, derrigortasun-dataren finkatzea, malgutasun prozesu baten barnean egin behar zen: “derrigortasun-data ezartzeko prozesua 10 urtekoa izango da” (8.1. artikulua); derrigortasun-data izendatzea lanpostu bakoitzean “aurrera eraman beharreko egitekoekin lotuta dago” (4.1. artikulua); “derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna esleitzeko prozesuak ez du zertan bat etorri organo eta eremu guztietan” (9.1. artikulua); hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data izendatzea Justizia gaietan eskumena zuen Sailari zegokion “sindikatu handienei galdetu ondoren” (6. artikulua).

Lanpostu “guztien” hizkuntza-eskakizun beharra samurtzeko ahaleginak ez ziren nahikoak izan Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiarentzat. Bere 2009ko urriaren 1eko sententzian baliogabe deklaratu zituen ondoko artikulua: 3.a, 4.1 (hasierako zatia), 12.2 (bigarren zatia) eta 9.5. Bere esanetan, artikulua horietatik ondorioztatzen dena, hau da, lanpostu-zerrendako lanpostu guztietan hizkuntza-eskakizuna izendatzea, ez dator bat BJLOko 521.3.b) eta 530. artikuluetan jasotakoarekin. Bi artikulua hauen arabera, lanpostuak “orokorrak” eta “bereiztuak” bezala sailkatzen dira, eta bakarrik, azken hauetan izan daiteke derrigorrezkoa hizkuntza-ofizialen ezagutza, baldin eta lanpostu horretan bete behar diren egitekoek hala eskatzen badute. Auzitegiaren esanetan, Hizkuntza-eskakizunak lanpostu guztietara zabalitzeak, nahiz derrigortasun-data malgua izan, aipatutako BJLOko artikulua horiek urratzen ditu, lanpostu guztiak “bereiztuak” bihurtzen baitira horrela.

Hau guztia kontuan hartuta, 174/2010 Dekretu berriak garbi uzten du zein izango den irizpidea:

(...) adierazitako bi tentsioak bateratu behar dira: batetik, herritarrek hizkuntza propioa erabiltzeko duten eskubideari behar bezala erantzutea, eta, bestetik, hizkuntzak arlo judizialean duen zabalkunde soziologikoa. Oreka hori helburu, lanpostu zehatz batzuk bereiztearen aldeko apustua egin da (...). Lanpostuak bereizteko prozesuak sektoriala, pixkanakoa eta planifikatua izan behar du.

Horrela dio Hitzaurreak, eta horrekin bat etorritik, Justizia Administrazioan hizkuntza-normalkuntza lortzeko neurriak adierazterakoan, lehendabizikoa da “lanpostu jakin batzuk lanpostu berezi gisa sailkatzea, lanpostuen zerrendan horiei esleitutako funtzio zehatzek euskaraz jakitea eskatzen dutelako” (3.a. artikulua). Eta nola jakin daiteke “funtzio zehatzek euskaraz jakitea eskatzen” ote duten? Artikulu berak dio unitateak sailkatzerakoan, hizkuntza-betebeharrei begira, “herritarrekiko harremana zuzenagoa edo zeharkakoagoa den eta laneko harreman-arloa nolakoa den oinarritzat” hartuko direla (3.b.). Hori bai, beti ere,

Justizia Administrazioaren arloko hizkuntza-normalkuntza pixkana-pixkana eta modu progresiboan eramango da aurrera, Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileen trebakuntza eta errealitate soziolinguistikoak sortutako beharra aintzat hartuz (4.1. artikulua).

Hizkuntza-normalkuntzarako prozesua pixkanakakoa eta progresiboa izanik, zerbitzu bakoitzak dituen funtzioen arabera, lehentasun-maila desberdinak esleitzeko aukera aurreikusten da. Esaterako, “lehentasuneko unitate” bezala

sailkatzen dira (5.3.a. artikulua) Erregistro Zibilak, herritarrei ahoz nahiz idatziz arreta ematea eginkizun nagusi duten unitateak, baita egoitza judizialek kanpo jardutea eskatzen duten komunikazio- eta betearazpen-egintzen zerbitzu orokorrak ere. Lehentasuneko unitate hauen artean, gainera, lehentasun-maila desberdinak bereizten dira. Hala nola, 1ngo mailako lehentasuna dute herritarrei informazioa emateko unitateak; 2. mailako lehentasuna dute bake-epaitegiek eta erregistro zibilek; eta 3. mailako lehentasuna dute egoitza judizialek kanpo jardutea eskatzen duten komunikazio- eta betearazpen-egintzen zerbitzuek. Herritarrei ahoz nahiz idatziz arreta ematea eginkizun nagusi duten unitateetan, lanpostu guztiak bereizi ahal izango dira (5.4. artikulua).

174/2010 Dekretuan zehar, behin baino gehiagotan aipatzen da hizkuntza-normalkuntzarako prozesuan kontuan hartuko dela irizpide bezala Justizia Administrazioak herritarrengandik duen hurbiltasuna (3.c), herritarrekiko harremana zuzenagoa eta zeharkakoagoa ote den (3.b; 9.1.a; etab.), eta horretarako, baita ere “errealitate soziolinguistikoak sortutako beharra” (4.1). Azken irizpide honen inguruan zerbait esan beharra dago, 152/2008 Dekretuak ere kontutan hartzen baitzuen, eta Justizia Auzitegi Nagusiak bere interpretazio egokia zein zen argi utzi baitzuen. Azken Dekretu honek bere 10.1. artikuluan, bereizi behar ziren lanpostuak zehazteko, kontuan hartuko ziren arloak banan-banan aipatzen zituen (orain 9.1. artikuluan jasotzen diren bereak, hau da, herritarrekiko harremana, lanpostuaren erantzukizun-maila, etab.). Eta bigarren paragrafoan zehazten zen euskara jakin beharra baldintzatzen zuten funtzio nahiz eginkizunak baloratzeko eta hizkuntza-errealitatera hurbiltzeko “ahaleginak egingo dira dekretu honen aplikazio-eremuko lanpostuen dotazio-ehunekoa (...), txikiagoa ez izaten euskarak barruti judizialean duen ezarpena adierazten duen indize soziolinguistikoa baino”.

Labur esanda, Justizia Auzitegi Nagusiak interpretatu zuen euskarak barruti judizial batean duen indize soziolinguistikoaren ehunekoa minimo bat baldin bazen lanpostu bereziak zehazterakoan, ondorioa izango zela euskararen eskakizuna ez zela egongo lanpostuan bertan betetzen zen funtziopean, baizik beste irizpide baten pean (indize soziolinguistikoa). Horregatik, bere 2009ko urriaren 1eko sententzian, 10.2. artikulua baliogabe deklaratu zuen. Horregatik ere, onartu berria den 174/2010 Dekretuan, aldarrikatzen da “bereizitako lanpostuen egokitasuna eta proportzionaltasuna baloratu beharko dira, mugape judizialaren lurraldean *euskarak benetan duen ezarpena kontuan hartuta*” (9.2. artikulua), baina, orain, indize soziolinguistiko gutxiengorik aipatu gabe.